



## ARTZINIEGAKO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2018ko urtarrilak 4**  
**Ordua: 19:00 – 20:05**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Maria Lorente Burgos  
Miren Izaskun Perez Barragan  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Alazne Lafragua Ureta  
Arkaitz San Jose Martinez  
Unai Gotxi Kastrexana

Ez da agertu: Joseba Elejalde Ribacoba, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta erabaki hauek hartu dira:

#### **1.- 2017ko azaroaren 23an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.**

Alkatea: Baduzue ezer esateko?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (3);

Onartuta geratu da.

#### **2.- Miren Izaskun Perez Barragan andrea zinegotzigoaz jabetzea.**

Alkatea: beno, badakizue Joselu del Valleek dimisioa eman zuela eta Izaskun Perezek ordeztuko duela.

Akordio-prosamena irakurri da:



«2017ko azaroaren 2an JOSE LUIS DE VALLE DUQUE Jaunak zinegotzi karguaren ukoa aurkeztu ostean, Udalak EUZKO ALDERDI JELTZALEA Alderdiko hautesle-zerrendan hurrengo hautagaia izendatzeko espedientea izapidetu zuen, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren aurrean.

Udalak Hauteskunde Batzorde Nagusiari eskatu zion egiaztagutunak MIREN IZASKUN PEREZ BARRAGAN andreari igortzeko, 2015ko maiatzaren 24an egindako udal hauteskundeetako zerrendan hura baitzen hurrengoa. Egiaztagutun horiek 2017ko abenduaren 15ean jaso ziren Udalean, Udaleko Erregistro Orokorrean 3.343 sarrera-zenbakiarekin.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza honek, **ADOSTU DU:**

MIREN IZASKUN PEREZ BARRAGAN Andreak Udaleko zinegotzi karguaren jabetza hartzea onartzea, Jose Luis de Valle Duque ordezkatzuz.

Eta horretarako eta lege ezarritako prozedura betez, Alkateak galdetu dio MIREN IZASKUN PEREZ BARRAGAN andreari, honakoa:

Zin edo promes egiten duzu zure kontzientzia eta ohorez, Artziniegako Zinegotzi karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko dituzula eta Konstituzioa errespetatuko duzula funtsezko arau modura?

MIREN IZASKUN PEREZ BARRAGAN andrea (EUZKO ALDERDI JELTZALEKO Zinegotzia):

Nik baietz esango dut legeak hala agintzen du eta.

Alkateak ongietorria eman dio Korporazio osoaren izenean eta bere postua hartzera gonbidatu du.

Zinegotzi karguaren jabetza hartu ostean, MIREN IZASKUN PEREZ BARRAGAN andreak Bilkuran parte hartu du.

Joseba Vivanco Retes: gure taldetik Izaskuni ongietorria eman nahi diogu eta legealdi honetan geratzen den denboran adostasunak desadostasunak baino gehiago izatea espero dugu.

Miren Izaskun Perez Barragan: espero dugu. Mila esker.

**3.- Azken Ziurtapena onartzea, Barcenako aparkalekuko obraren likidazioa.**

**“AKORDIO-PROIEKTUA.**

**Gaia.- Barcena auzoko 5. zenbakian “Barcena” aparkalekurako urbanizazioko obraren bosgarren ziurtapena onartzea.**

Ikusirik ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. sozietateak 2017ko abenduaren 28an aurkeztutako 5228 zenbakidun faktura (3489 sarrera), “Barcena” aparkalekurako urbanizazioko obraren bosgarren ziurtapen-likidazioari dagokiona, 62.731,09 euroko zenbatekoaz.



*IKUSIRIK lanak ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. enpresari esleitu zitzaizkiola 2017ko martxoaren 23ko Udalbatzaren akordio bidez, 157.418,62 euroko zenbatekoaz eta BEZ zergari dagokion 33.057,91 euroekin, guztira 190.476,53 euro izanik.*

*IKUSIRIK Tokiko Gobernu Batzordeak 2016ko ekainaren 14an egindako ezohiko saioan Barcena Auzoko 5. zenbakian "Barcena" aparkalekurako urbanizazio Proiektua onartu zuela, Ignacio Pedreira jaunak idatzia, Udal Teknikariak aldeko txostena emanik.*

*KONTUAN HARTUZ Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute, jaunak, 2017ko abenduaren 28an (3493 zenbakidun sarrera) hurrengo txostena igorri zuela:*

*"Ignacio Pedreira Ruiz de Arcautek, Artziniegako Barcena Aparkalekuaren Urbanizazioko obren Zuzendari modura, eta dokumentu honetara atxikitako BOSGARREN ziurtapenari dagokionez, jakinarazten du egindako eta ziurtatutako obrak Udalak onartutako obraren lizitaziorako oinarritzat hartutako Proiektuan zehaztutakoekin bat datozela".*

*Azaldutakoa oinarritzat hartuz, azaroaren 16an egindako Lurraldeko Informazio Batzordeak erabakita, Udalbatzak hartu du hurrengo*

#### **AKORDIOA:**

**Lehena.-** *Bosgarren ziurtapen-likidazioa eta ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. sozietateak 2017ko abenduaren 28an aurkeztutako 5228 faktura onartzea, Barcena Auzoko 5. zenbakiko "Barcena" aparkalekurako urbanizazioko obrari dagokiona 62.731,09 euroko zenbatekoaz.*

**Bigarrena.-** *Akordio honen berri ematea Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Orekarako Sailari, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean onartutako diru-laguntza izapidetu dadin, espedientea: 16/10126-P.*

**Hirugarrena.-** *Akordio honen berri ematea Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailari, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari, onartutako diru-laguntza izapidetu dadin, espedientea: 27/2016-00513".*

*Alkatea: esan obraren harrera joan den astean izan zela, obraren azken ziurtapena igorri zen, eta era berean, beno, datorren astera pasa den Osoko Bilkuraren arrazoia hemen edukitzea izan da justifikazioa Foru Planera aurkeztu ahal izateko, baina hobea da aste honetan ziurtapena onartzea. Zerbait esan nahi baduzue.*

*Joseba Vivanco Retes: bai, gure aldetik, beno, ezer baino lehen jakin nahi dugu ea, uste dut joan den astean izan zela, hilaren 28an edo 26an, obraren harrera sinatu zen, lanak zeuden burutzeke, harrera horretan barneratzen ziren hainbat lan zeuden burutzeke, eta horiek amaitu*



diren ala ez jakin nahi dugu.

Alkatea: bai, arkitektoak obraren azken deklarazioa igorri du dagoeneko.

Joseba Vivanco Retes: Baina burutzeke zeudenak ere amaituta daude? Farolen argiztapenaren kontua ikusi dugu egin dela. Bazen gairen bat burutzeke, hots, monetak sartzeko gailuen arteko konexioren bat eta kiroldegia berrera egin behar zuten kondukzioren bat, eta ez dakigu amaituta dagoen ala ez. Iturriaren kontua ere bai, iturria aldatu egin behar zen, eta ikusi dugu hori ez dagoela aldatuta, eta bazen konturen bat zelaiarekin, eta ez dakigu hori ere burutu ote den, egin den ala ez.

Alkatea: bai, nik arkitektoarekin hitz egin nuen azkeneko aldiz dagoeneko prest zela zen. Agian, gauza txikiren bat faltako da, baina tira, nagusia eginda zegoen.

Joseba Vivanco Retes: edozein kasuan gauza bat ohartarazi, ikusi dugu burutzeke dagoela, egin zedila aipatu zen, ez dakiguna da gerora izango den, futbol-zelaitik kiroldegira joango den zebra-bidearen kontua, zoru zebra-bide bat marraztu zedila eskatu baikenuen. Ikusi dugu ez dagoela egina, ez dakiguna da aparte joango ote den. Lurrezko pasealekua pentsatzen dut obraren harreratik aparte joango dela, azken batzordean gerora komentatu zen gai bat da hori. Eta, ondoren, ikusi dugu plaka, sarreran autokarabana-zonaldea seinaleztatuz dagoen kartela gaztelaniaz dago soilik, orduan ez dakigu azken batean eraikitzailearen akatsen bat den edo ez ote diren konturatu, edo euskaraz beste bat ipiniko ote den bestaldean edo alboan, edo zer den erabakitakoa, baina plaka gaztelaniaz dago soilik.

Arkaitz San Jose Martinez: eta beste ñabardura bitxi bat, ez dakit Udala arduratu behar den gainera beste zuhaitz bat erori zitzaielako erori den zuhaitza kentzeaz, hots, fakturatu diguten bigarren zuhaitza, lehen zuhaitza behar bezala kendu ez izanaren ondorio da. Beste zuhaitzaren gainera erori baitzen, eta gero haizea etorri zenean, bigarrena erori zen haizearen ondorioz. Bat gaizki bota zen, bestearen gainera erori zen...

Alkatea: haiek arduratu ziren lehorra zegoen bat kentzeaz, eta ondoren bestea erori zen.

Arkaitz San Jose Martinez: Baina zergatik erori zen? Lehenengoa bigarren zuhaitzaren aurka erori zitzaielako. Hau da, han ari zirela, beno, ni ez naiz bertatik bertako lekukoa, baina...

Alkatea: ez, ez, ni ere ez.

Arkaitz San Jose Martinez: sokatik tiraka ari ziren, soka hautsi egin zen, zuhaitzetako baten aurka erori zen, nik zuhaitz bat ikusi nuen beste baten aurka bermatuta, hori bai ikusi dudala, eta ondoren albo baterantz botatzen saiatu ziren zuhaitza kendu zuten eta, haizearen ondorioz, bigarren hori izan zen erori zena.

Alkatea: nik badakit arazo bat izan zela lehenengoarekin, ikustera hurbildu ginenean jadanik kenduta zuten, lehenengo zuhaitza, eta ez dakit beste zuhaitzaren aurka joan zen ala ez. Ez dakit.

Arkaitz San Jose Martinez: nahi baduzu argazkiak helaraziko dizkizut. Lehenengo zuhaitza ondoren haizearen ondorioz erori zenaren aurka joan zen. 450 euro horiek beregain har zitzaieten.

Joseba Vivanco Retes: edozein kasutan, puntu honetan gure botoa ez da aldekoa izango, eta laburki azalduko dut arrazoiak. Obra hau, ziurrenik iragandako beste osoko bilkura batzuetan entzun izan den moduan, martxoan esleitu zen, martxoaren 23an, zuinketa-akta apirilaren 4an sinatu zen, hasiera batean hiru hilabeteko iraupen batekin, eta, ikusi dugunez, urtearen amaierara iritsi gara, korrika eta presaka obra amaitu dadin. Hiru hilabeteko obra bat, iraila baino lehen amaituta behar zuena, eta abenduaren 20an gaude enpresari ultimatum bat ematen zaiola, abenduaren 31 baino lehen amaitu dezan, eta ondoren abenduaren 26an obraren harrera sinatzen da dagoeneko, oraindik burutzeke dauden hainbat lanekin. Hau da, azken batean Udala honetan sarritan aipatu dugun obra bat da, atzerapenei buruz hitz egin da, atzerapenak zalantzan jarriz, atzerapenen arrazoiak zalantzan jarriz, gehienetan azalpenak falta ziren, azken batean bazirudien ez zuela axola atzerapenak egotea, irailaren erdialdean has zitezela, edo lehenago has zitezela, edo hilabete eta erdi egon zitezela obratik agertu gabe, eta xehetasunak falta izana... baina azkenik abenduan korrika gabiltza obrarekin gaur onartu beharreko ziurtapen hau aurkeztu behar delako Aldundian aurkezteko. Eta zer gertatzen da? Azken batean obra hau eta Gaztelekuko obra aldi berean suertatu direla, eta azken horren ziurtapena joan den osoko bilkuran onartu genuen. Iraila hasi aurretik amaituta behar zuen beste obra bat. Eta zer gertatu



da? Azkenean hura ere ia urte amaierara arte atzeratuz joan dela. Orduan pentsa dezakegu kointzidentzia bat dela, kasualitate bat, baina Udalak aurreten bere eskuetan zituen bi obrak, bi obra garrantzitsuak, kontua da iraila baino lehen amaituta egon behar zirela hasiera batean, oso beranduenez irailan, eta azkenean urtearen amaierara joan gara korrika eta presaka. Bide batez, ez dakigu Gaztelekuko obran falta ziren xehetasun guztiak dagoeneko amaituta dauden. Izan ere, obraren harrera sinatu zen hartan ere, joan den hilean onartu zen obraren azken ziurtapena, baina han obraren harreran sinatu zenean xehetasun asko falta ziren, orrialde bat eta baita beste bat ere, falta ziren xehetasun pila batekin. Espero dugu, pentsatu nahi dugu gaurtik eta urtearen amaiera bitartean dagoeneko konpondu direla. Urtea amaitu den honetan dagoeneko konpondu izana, eta ez daitezela egon oraindik konpontzeke dauden xehetasunak, edo burutzeke daudenak. Izan ere, azken batean, obra batzuk onartzen ari gara, ziurtatzen ari gara, onesten, oraindik burutzeke dauden gauzak daudela jakinik. Kasualitatea izan zein ez, kontua da azkenean bi obrek izan duten taxua izan dutela uste osoan zehar, atzerapenekin, izan diren guztiarekin, eta amaieran korrika eta presaka. Orduan, horixe da laburki azalpena, zergatik guk, gure taldetik, ez dugun onartuko, aurreko ziurtapena onartu ez genuen bezala, hau ere ez dugu onartuko.

Alkatea: ez, ulertzen zaitut, eta egia da bi kasuetan gorabeherak izan direla, zehazki Barcenako parkingean, guztiok guregain hartzen dugu plangintza aldetiko akatsa, zera da, hasierako arrapala aldatu egin behar izan genuela eta, horrez gain, Uraren baimenekin lotutako proiektuaren aldatzea ere bai. Gero, enpresari egotzi ahal zaizkion atzerapenak ere izan dira, hori ere egia da. Baina egia da atzerapena egon dela obra gauzatzerakoan.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta EH-Bildu alderditik (3);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Onartuta geratu da.

#### **4.- Artziniegako Udaleko auto-karabanen zerbitzugunea Arautzeko Udal Ordenantza behin-behinean onartzea.**

##### ***“2017KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA***

*Ikusirik Artziniegako udalerrian auto-karabanen zerbitzugunearen erabilera Arautzeko Udal Ordenantza, Alkatezak aurkeztua, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo*

##### **AKORDIOA**

**LEHENA.** *Artziniegako udalerrian auto-karabanen zerbitzugunearen erabilera arautzeko udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea, jarraian jasotzen den moduan idatzita:*

1. ARTIKULUA.- Helburua eta aplikazio-eremua

1.- Ordenantza honek bi xede dauzka: batetik, arautzea nola erabili behar den Artziniegako udalerrian, autokarabanak aparkatzeko berariaz atondutako eremua, bertako baliabideak eta espazioak babesteko eta pertsonen segurtasuna bermatzeko eta ziurtatzeko aparkaleku publikoak herri bideen erabiltzaile guztien artean modu ekitatiboan txandakatzen eta banatzen direla; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarrita dagoen kanpaldi librearen debekua betearaztea.



2.- Udal ordenantza honetako manuak Artziniegako udal barruti osoan aplikatzekoak dira.

## **2. ARTIKULUA.- Kanpatze librea**

Zehapena ezarriko zaie Artziniegako udalerrian libreki kanpatzeko debekua hausten dutenei, aldez aurretik baimena eskuratu ezean.

## **3. ARTIKULUA.- Definizioak**

Kanpatze libre modura ulertzen da aterpetxe, kanpin-denda, karabana, autokarabana edo erraz garraia daitezkeen bestelako elementuak aldi baterako erabiliz egiten dena, kanpatzea hartzen duten lurren gainean hura erabiltzeko eskumen, baimen edo eskubiderik izan gabe.

Kanpatze-elementu modura ulertzen dira erraz garraia daitezkeenak, eta zimendurik gabe daudenak. Kanpatze libre terminoaren barnean sartzen dira ordenantza honetan araututako denboratik gorako egonaldia, nahiz Udalaren arabera edozein udal Ordenantzaren aurkakoak izan daitezkeen jarduerak.

## **4. ARTIKULUA- Geldialdiaeta aparkatzea**

Baimendurik dago herriko kaleetan autokarabanek eta ibilgailuek geldialdiak egin eta aparkatzea; betiere, geldialdi edo aparkatze hori arriskutsua ez bada, Legearen arabera bada, zirkulaziorako oztopo edo arriskua ez bada eta ibilgailua horretarako baimendutako lekuan kokatuta badago behar bezala, Herrigune Historikoan izan ezik, bertan sarbidea mugatuta baitago, Artziniegako Herrigune Historikoko Oinezkoen Zonaldea Arautzeko Ordenantzarekin bat etorriz. Horrenbestez, autokarabanek geldialdia egin eta aparkatzeko maniobrak egin ditzakete beste edozein ibilgailuk bezalaxe, baldintza eta muga berdinekin.

Adierazpen ondorioetarako soilik eta adierazgarri modura, autokarabana bat aparkatuta dagoela ulertuko da, kanpatuta egon gabe, egoera hauetan:

1.-Zorua gorpilek edo segurtasun altxagarriek bakarrik ukitzen dutenean (hanka egonkortzaileak eta bestelako antzeko gailuak ez daudenean jaitsita.

2.- Autokarabanak itxita dagoela okupatzen duen eremua baino ez denean okupatzen, hau da, ez da ibilgailuaren perimetroaz gaindiko eremua hartzen duten berezko elementurik hedatzen. Baimenduta egongo da leihoak eta sabai altxagarriak irekitzea (camper erako furgoneten kasuan), betiere, gainerako erabiltzaileentzako ez bada ageriko arrisku bat.

3.- Ez denean isurtzen inolako fluidorik, ez kutsagarriarik, ez bestelakorik. Salbuespenak: motorraren errektuntzak sortu eta ihes hodiaren bitartez kanporatzen direnak; gizalegez jokatzeko ez denean edota jarduera osasungaitzen bat egiten denean (bide publikoan ura hustea, esaterako) sortzen direnak.

4.- Herritarrek atsedean hartu ohi duten orduetan ez denean egiten zarata gogaikaririk (esaterako, elektrizitate sorgailuarena) eta ekipo akustikoak ez daude altuegi piztuta, eta egunez aldi luzeetan ere ez.

## **6. artikulua. Geldialdiaren debekua.**

Debekatuta dago karabana eta autokarabanen geldialdia, herri bideen barnean edo herri bide deklaratuakoen barnean egonik, hurrengo inguruabarrak ematen diren lekuetan:

a- Seinaleztapenak berriaz debekatutako lekuetan.

b- Bihurguneetan eta ikusgarritasun urriko arrasa-aldaketetan, eta inguruetan.

c- Oinezkoentzat seinaleztatutako pasabideetan.

d- Oinezkoentzako zonaldeetan, garraio publikoaren geralekuetan (zerbitzu erregularrak nahiz zerbitzu berezietan), eta erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako edo zerbitzurako berriaz gordetako gainerako erreie edo bide-zatietan.

e- Bidegurutze eta elkarguneetan,

f-Trafikoko seinaleak ikustea ekiditen denean.



g- Biraketa egitea eragozten denean edo maniobrak egin beharra eragiten denean.

h- Bigarren ilaran.

i- Bide azkarretan eta lehenasunezko arretako bideetan.

j- Erdiko edo alboetako pasabideetan eta zoladuran zerrendaz seinaleztatutako zonaldeetan, hala okupazioa partziala denean nola osoa denean.

k- Espaloietan pertsonak igarotzeko dauden pasabideetan.

l- Zirkulazioa oztopatzen denean, denbora gutxian izan arren

### **5. ARTIKULUA- Karabanaketa atoiak**

Udal barruti osoan debekaturik dago karabanak edo beren ibilgailu traktoreetatik bereizitako atoiak aparkatzea.

6. ARTIKULUA.- Geldialdiaren gehienezko denbora

1.- Autokarbanentzat gordetako aparkaleku espezifikoan gehienez ere 72 orduz jarraian aparka daiteke.

2.- Udalerriko gainerako aparkalekuetan gainerako ibilgailuentzat ezarritako denbora-muga bera aplikatuko da.

7. ARTIKULUA.- Zerbitzugunea eta autokarbanentzatko aparkaleku espezifikoa

Barcenan autokarbanentzako dagoen zerbitzugunean erabilera-arau hauek bete beharko dira:

1.- Erabiltzaileek erabilgarri izango dute autokarbanek eta etxebizitza-ibilgailuek sortutako ur beltzak eta grisak isurtzeko eremu bat. Halaber, eremu horretan ur-hartune bat (edangarria) eta argindar-hartune bat egongo dira. Argindar-zerbitzua erabili ahal izateko erabiltzaileek horretarako txartela jaso beharko dute. Txartel horren tarifa ordenantza fiskalean islatuko da eta aparkalekuan bertan adieraziko da hura non lor daitekeen.

2.- Andelak husteko eremuan ezin da aparkatu; eremua oztoporik gabe egon beharko da, eremu hori erabiltzeko eginkizunetarako erabiltzen ez den bitartean.

3.- Erabiltzaileek garbi mantendu beharko dute zerbitzugunea. Gertatzen den edozein gorabehera tekniko, matxura, hondamen, gabezia edo erabilera oker ikusiz gero, erabiltzaileek Udalari jakinarazi beharko diote lehenbailehen instalazioen erabilera egokia bermatze aldera.

4.- Debekaturik dago udalerrri osoan, eta zehazki Barcenako Autokarbanentzako zonaldean, edozein ibilgailu mota garbitzea, horretarako berariaz baimendutako instalazioetan izan ezik. Arau hau haustek zehazpena ekarriko du.

5.- Zerbitzuguneetako erabiltzaileek Udaletik zonaldea zaindu eta mantentzeko eta auzotarrekin bizikidetzat ona errespetatzeko ematen den edozein argibide onartuko dute. Halaber, Udalak, zerbitzuguneetarako gaitutako eremuak edozein unetan balia ditzake beste erabilera batzuetarako, eta horrek ez die erabiltzaileei inolako kalte-ordainik ekarriko.

6.- Autokarbanentzako gordetako zonaldeetan aparka dezakete soilik etxebizitza modura katalogatuta dauden eta komuna eta erabilitako urak jasotzeko tangaz hornitutako ibilgailuak, kanpoan geratzen delarik etxebizitza modura homologatuta ez dagoen beste edozein ibilgailu (esate baterako, kamioiak, karabanak, turismoak, etab.).

7.- Aparkatutako ibilgailuek plaza bakoitzerako emandako eremuaren mugak errespetatuko dituzten une oro.

8.- Gehienez ere 72 orduz egon daiteke aparkatuta, geldialdia egiten denetik hasi eta plaza uzten den unera arte zenbatuta. Soilik ezinbesteko kasuetan edo premiazkoa denean, eta alde zuzenetik udal baimena izanda, egonaldia egiteko gehienez baimendutako denbora gainditu ahal izango da.



9.- Autokarabanetarako zonaldea ez dago zaintzapean. Horrenbestez, Udalak ez du erantzukizunik erabiltzen diren etxebizitza-ibilgailuetan gerta litezkeen gorabehera, lapurreta eta antzekoen gainean.

10.- Debekatuta dago bide publikoan eta, bereziki, autokarabanak aparkatzeko plazetan kanpatzeko elementuak instalatzea, esaterako, mahaiak, aulkiak edo olanak, ez bada horretarako berariaz baimendutako lekuetan.

#### **ZEHAPEN ARAUBIDEA**

##### **8. ARTIKULUA.- Ez betetzea**

Ordenantza honetako edozein artikulua nahiz Alkatetzak haren garapenean emandako xedapenak urratu edo ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, eta Udalari dagokio ikuskapen- nahiz zehazpen-funtzio egokiak betetzea.

Segurtasun Indar eta Gorputzak edo eskumen hori eman zaien Agenteak izango dira Ordenantza hau betetzen dela ziurtatzeaz arduratuko direnak.

##### **9. ARTIKULUA. Xedapen orokorrak.**

1. Herri barruko bideetatik zirkulatzeari eta Ordenantza honetan araututako gainerako arloei dagozkien xedapenetako arau-hausteak zehatzeko eskumena Alkatearena da bertan edo arloko legerian aurreikusitako kasuetan.

2. Arau-hauste eta zehapen motak Legeetan ezarritakoak, Legeen esparruan Ordenantza honetan zehazten direnak eta Ordenantza honetakoak dira.

3. Dagokion zehapena jartzeaz gain, Udalak aldatutako errealitate fisikoa eta hautsitako ordena juridikoa berrezartzeko neurri egokiak hartu ahalko ditu, egikaritze subsidiarioa arau-haustearen erantzukizuna izanik eta sortutako prezio publikoen ordainarazpenarekin.

4. Arau-hausteen erantzukizuna arau-haustea eragin duen gertaeraren egilearena izango da zuzenean, eta beste pertsonarik izan ezean, arau-haustearen gainerako erantzukizuna instalazioaren gidari edo jabedunarena izango da.

##### **10. ARTIKULUA. Arau-hausteak.**

Ordenantza honetako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak dira.

###### 1. Arau-hauste arinak dira:

- a) Finketara ibilgailuarekin espaloiairen gainetik sartzea, lizentziarik izan gabe.
- b) Autokarabanaren perimetrotik kanpo elementuak kokatzea, esate baterako, olanak, mahaiak, aulkiak edota nibelatzeko hankak, baimendu gabeko zonaldeetan.
- c) Adierazitakoa ez den norabidean ipintzea edo ibilgailu bakoitzarentzat zedarritutako zonaldeetik kanpo ipintzea.

d) Arloko legeriaren arabera ezarritako ordutegietatik kanpo zarata desatseginak ateratzea.

e) Larri edo oso larritzat hartzen ez den beste edozein.

###### 2. Arau-hauste larriak dira:

- a) Soinu-ekipoetatik datozen zaratak ateratzea kanpoaldera.
- b) Ibilgailua udalerriko edozein lekutan garbitzea, horretarako dagokion lizentzia duten instalazioetan izan ezean.

###### 3. Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Likidoak edo hiri-hondakin solidoak botatzea horretarako adierazitako lekuetatik kanpo.
- b) Hiri altzariak kaltetzea.





c) Ibilgailuen trafikoa erabat oztopatzea, hori justifikatzen duen ezinbesteko kasurik tartean izan gabe.

### **11. ARTIKULUA. Zehapenak**

1. Honatx artikulua honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien zehapenak:

- a) Arau-hauste arinak 80,00 euroko isunekin zigortuko dira.
- b) Arau-hauste larriak 200,00 euroko isunekin zigortuko dira.
- c) Arau-hauste oso larriak 500,00 euroko isunekin zigortuko dira.

2. Isun erako zigorrak ezartzerakoan kontuan hartuko da, edozein kasutan, arau-haustea ez dadila onuragarriago izan arau-hauslearentzat hautsitako arauak betetzea baino.

**AZKEN XEDAPEN BAKARRA.**

Ordenantza hau Probintziako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpenaren erabakia eta hartako testu osoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.

**ZERBITZUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA**

Argindarraren prezioa: 3 €. 12 ordu.

***BIGARRENA*** *Udal Ordenantza hau jendaurrean eta interesdunen aurrean ipintzea, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratuta, hogeita hamar eguneko epean zehar, erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten, Korporazioak ebaztekoak izango direnak. Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betikoz onartutzat joko da, Udalbatzaren aldetiko Akordio berariazkoaren beharrik gabe.*

*Halaber, interesdunen eskura dago Udal honen web-orrian [helbidea: [www.artziniegakoudala.eus](http://www.artziniegakoudala.eus)].*

***HIRUGARRENA.*** *Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentu oro sinatzeko eskumena ematea”.*

Alkatea: ordenantzaren xedea sortzen diren plaza horiek arautzea da, eta baita Artziniegan autokarabanetarako aparkalekuaren araubidea ikustea ere. Autokarabanen alde egiten da, turismoari begira ere ardatz izan daitekeen elementu modura, autokarabanako turismoarena, gero eta jende gehiago etortzen da eta, beno, ordenantza eratzeko autokarabana zaleen Elkartearekin ere izan gara harremanetan, haiek kontua nola ikusten zuten balioesteko, eta hobetzen joateko egin zitezkeen proposamenak jasotzeko. Lehenengo ordenantza bat da, ikusiko dugu zer-nola moldatzen garen, eta gerora aztertu egin beharko da, eguneratu, etab.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (3);

Onartuta geratu da.



## **5.- EH Bildu udal talde politikoaren mozioa, udal finantzario buruzkoa.**

Joseba Vivanco Retes: "EH BILDU taldetik ekimen hau aurkezten dugu, Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsa arautzen duen Foru Araua eguneratu eta berritzeko premiari heltzea duena xede nagusizat, 1997. urteko araua baita.

Arabako lurralde historikoak gure tokiko erakundeentzat, besteak beste, erabilgarri zeuden finantza-baliabideak finkatu, arautu eta eskaini izan ditu, ahal den heinean, erakunde horietako berezko eta beti beharrezkoak diren eginkizunak bete ahal izateko. Finantza-baliabide horiek Ekonomia Itunetik eratorzen diren tributu itundu izenekoaren urteroko bilketaren emaitza garbia dira.

Udalaz gaindiko legeria aldaketa ugarien ondorioz (EAEko Tokiko Erakundeen Legea, Gizarte Zerbitzuen Legea) eta urteen poderioz gaurdaino sortzen joan diren gizarte-premien eraginez, gure tokiko erakundeek gero eta eskumen eta zerbitzu gehiago hartu dituzte beren gain, subsidiarotasun-printzipioari helduz beren tokiko autonomia are gehiago indartu beharko luketenak, beren biztanleei ematen dizkieten zerbitzuen kalitatean positiboki eragiteaz gain.

Gure udal, kuadrilla eta administrazio-batzordeek tokiko administrazioaren maila osatzen dute, legezko erantzukizun andana dituztelarik, batez ere, funtsezko gizarte-zerbitzuak Lurralde Historiko guztian zehar modu eraginkorren eman eta hedatze aldera.

Haatik, errealitate gordina da 19/1997 Foru Arauan araututako Tokiko Erakunde horien finantzaketa hamabost urte baino gehiagoan eguneratu gabe dagoela, aitzitik, horiek finantzatzeko premiak hazten doazen bitartean.

Egoera hori tokiko autonomiaren aurka doa zuzenean, Tokiko Erakundeek beren betebeharrak betetzea ekiditen du eta gure biztanleentzat ondorio oso negatiboak ekartzen ditu.

Sarritan egin da Tokiko Erakundeen finantzaketa-sistema arautzen duen Foru Araua aldatu eta eguneratzeko ahalegina.

Joan den legealdian Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsaren eguneraketa aztertzeko Txosten bat hasi zen, baina Txosteneko lanak bertan behera geratu ziren, inolako ondorioz atera gabe.

2017ko lehen erdian zehar Batzar Nagusietan beste Txosten bat hasi zen alde zuzenarekin egindako lanei jarraipena emateko helburuarekin, baina Txosten hori ere geldirik dago, inolako justifikaziorik gabe, duela urte eta erditik.

Zoritxarrez, Foru Gobernu ezberdinak ez dira irtenbide bat planteatzeko gai izan, eta atzerapen horrek gero eta arazo gehiago sorrarazten ditu Tokiko Erakundeentzat.

Ateratzen dugun ondorioa zera da, ez dela egon gure tokiko erakundeen finantzaketa eguneratzeko egiazko borondate publikorik, eta gaur egun oraindik ez dago.

Aurreko guztiagatik, eta Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsaren eguneraketa eta berritzea aldarrikatzeko asmoz, EH BILDU taldetik mozio hau eztabaidatu eta ondorioz onartzea planteatzen dugu, lau puntu dituena:

1.- Tokiko Erakundeen finantzaketa-eredua aldatzeko eta Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsa berehala eguneratzeko premia berresten dugu, finantzaketa beharrezko, bidezko eta askia Arabako Kontzeju, Udal eta Kuadrillentzat.

2.- Batzar Nagusiei eta Arabako Aldundiari eskatzen diegu, ahalik eta lasterren, Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsaren Txostena berriro aktiba dezatela, uda baino lehenagotik bertan behera baitaude.

3.- Dei egiten diegu Arabako Batzar Nagusiei eta Aldundiari, Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsa berritu eta eguneratzeko beharrezkoak diren legezko aldaketei heltzerakoan, Tokiko Erakunde guztien parte-hartze zuzena ahalbidetu dezaten, horretarako beren ekarpenak egiteko adina bide gaituz.

4.- Mozio hau eskumeneko instituzio ezberdinei helaraztea, haren onarpenerako".

Unai Gotxi Kastrexana bertaratu da osoko bilkurara 19:17tan.

Bozkatu egin da:  
Kontrako botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Ez da onartu.

## **6.- EAE udal talde politikoak jarritako zuzenketa EH Bildu taldeak udal finantzaketari buruz aurkeztutako mozioari.**

Inmaculada Vivanco Retes: "EAJ taldearen zuzenketa, EH BILDU taldeak Tokiko Erakundeen autonomia eta finantzaketari buruz aurkeztutako mozioari.

1.- Artziniegako Udalak positiboki balioesten du 2018an Tokiko Erakundeen finantzaketan izango den % 0,5eko igoera, dagoeneko Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuen Proiektuan agertzen dena. Igoera horrek udal partaidetza % 57tik gorakoa izatea dakar, EAeko balio handienetan.

2.- Artziniegako Udalak komenigarritzat jotzen du Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsaren Txostena 2018ko lehen seihilekoan amaitzea, eta behin Udaletako, Kuadrilletako eta Kontzejuetako ordezkariak entzun ostean, ahalik eta adostasun handiena bilatzea talde politikoen artean, ahalik eta akordio handiena eta denboran ahalik eta gehien mantenduko den finantzaketa-eredu bat izate aldera.

3.- Artziniegako Udalak babesten du Tokiko Erakundeen finantzaketa bezain gai garrantzitsu bati buruzko erabakiak guztion artean hartzeko premia. Horregatik, Tokiko Erakundeen (Udalak, Kuadrillak eta Kontzejuak) eta hartako Elkarteak (EUDEL, ACOA eta ACOVI) parte-hartzea eta ekarpenak eskertzen ditu, Batzar Nagusietan dagoen Finantzaketari buruzko Txostena egiten ari baitira".

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: gure aldetik bakarrik, ezer baino lehen ñabardura bat, EAJ taldearen zuzenketa % 0,5eko igoerari buruz egiten den aipamena, 2018ko aurrekontuen barruan Arabako Udaletara eta udalerrietara zuzenduko den kopurua areagotu egingo dela eta, EH-BILDU taldeak joan den aurrekontuan, 2017an, EAJ taldearekin batera onartzeko, aurkeztu zituen baldintzei buruzko aipamena da. Aurten, guztiok dakizuen bezala, EAJ taldeak nahiago izan du Alderdi Popularrarekin adostu 2018rako aurrekontu-proiektu berria. Orduan, orduko hartan EH BILDU taldeak Tokiko Erakundeen finantzaketaren partida % 0,5 igo zedila lortu zuen. 2017. urtearen hasieran Tokiko Erakundeen finantzaketa-ereduari buruzko txostena jarri zen martxan, eta lehen seihileko osoan zehar Tokiko Erakunde ezberdinek beren agerraldia egin dute, beren egoeraren berri emanez, beren premiak azalduz eta beren eskumenak aipatuz, izan ere, Aldundiak gero eta eskumen gehiago uzten ditu tokiko Administrazio horien guztien eskuetan. Udaren aurretik txostena etenik geratu zen, eta gaur egin oraindik geldirik dago. Beraz, EAJ taldearen txostenaren adierazten da besterik gabe komenigarritzat jotzen duela txostena amai dadila, Udalei, Kuadrillei eta Kontzejuak entzutea, dagoeneko entzunaldia egin zaienean, hau da, 2017ko lehen seihilekoan entzunaldia egin zitzaizen, ez du inolako zentzurik berriro entzun behar zaiela esateak, beraz, azken batean beharrezkoa eta premiazkoa dena txostena berriro aktibatzea eta hartako ondorioak aurkeztu daitezela da. Behin ondorioak ezagutzen direnean, Tokiko Erakundeak finantzatzeko arau hau aldatzeko. Finean, oso ongi dagoela partaidetza eta ekarpenak eskertzea, EAJ taldeak Tokiko Erakundeen kasuan egiten duen moduan, txostena egiten ari baitira, baina azkenean ezerezean geratzen da, izan ere, azken batean ikusten dugu ez dagoela inolako asmorik eta borondaterik txostena amaitzeko, eta hori da gu eskatzen ari garena, non Tokiko Erakundeek dagoeneko parte hartu baitute, eskerra azken finean hutsala eta zentzurik gabe geratzen da, eta are gehiago kontuan izanda txostenaren presidentetza EAJ taldeari ere badagokiola, eta bere eskuetan bakarrik dago aurrera egiten jarraitu ahal izatea.



Azkenean, honek guztionek Udal honetan bertan Arabako Gizarte Zerbitzuen maparen gaiarekin dagoeneko izan dugun eztabaida dakarkigu gogora. Osoko Bilkura honetan sarritan eztabaidatu dugu, izan ere, azken batean txosten horiek, lan-mahai horiek, amaitzeko egunak ipintzen dira, eta datak adosten dira, eta azkenean ikusten dugu EAJ taldeak ez dituela oso-osorik amaitzen, edo data horiek igaro eta itxi gabe jarraitzen dutela. Beraz, gero eta ziurrago gaude EAJ alderdia oso seguru aurkitzen dela Napoleonek aipatzen zuen esaldi haren barnean, hots, "arazo bat konpondu nahi baduzu izendatu arduradun bat, eta arazoak jarraitzea nahi baduzu izendatu batzorde bat". Azken batean, EAJ taldeak batzordeak sortzen jarraitzen du, arazoak mantentzen daitezela.

Alkatea: beno, bat gatoz zerbaitetan, txostena amaitzeko premiarekin bat gatoz.

Joseba Vivanco Retes: EAJ taldearen erabakia, mozio honek hori eskatzen du, behingoz itxi dadila dagoeneko itxita behar zuenean.

Alkatea: eta egin dadila, eta komeni dela lehen hiruhileko honetan egitea. EAJ taldearen zuzenketako testuak aipatzen ditu, aitortzen du Udal, Kuadrilla, Kontzeju, Eudel, Acoa eta Acovi elkarten partaidetza, eta ondoren, beste alde batetik, eztabaida hau garrantzitsua da baina erabaki batzuetan ez dago erabakitzeke inolako ahalmenik eta elementu oso erabakigarria dute Udalen finantzaketan, esate baterako, oso garrantzitsua da joan den asteko albistea, hau da, Mercedesek atzera egin duela enpresa-banaketa bere erabaki estrategikoan, Araban diru-sarrera 200.000.000 euro murriztea suposatzen zuena. Horrek Artziniegarentzat zenbat suposa dezakeen kalkulatu badugu, bada, elementu garrantzitsua da. Gero badira beste hainbat inguruabar, esate baterako, ekarpenen legearen negoziaketarena, eta hori ere erabakigarria izango da, izan ere, ez dagokie soilik Arabako udalerriei, baizik eta hiru lurraldeetako udalerriz guztiei. Hots, zein da egun finantzaketa? Bada, hiru lurraldeetan finantzaketa, beno, bada ezberdintasunik. Zehazki, Bizkaian, erabilgarri dauden baliabideen % 56 bideratzen da, Araban ere % 56 zen, baina portzentaje horretako 52,3 Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtsak baldintzatu gabeko finantzaketara bideratuta eta % 3,7 Foru Planera bideratuta. Orain, % 56,5 da. Horrenbestez, 52,8 izango da Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtsan baldintzatu gabeko finantzaketan eta 3,7 Foru planera bideratzen jarraituko da, eta ondoren Gipuzkoan apur bat gehiago da, % 58. Portzentaje horiek gorabehera, era berean, lurralde bakoitzeko banaketa-irizpideak ere ezberdinak dira. Hala, mila biztanleko udalerririk ez du berdina jasotzen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: Bakoitzak bere irizpidea dauka. Orduan, egia da Arabako eztabaida bat dela, baina lurralde osoan ezarri beharreko eztabaida bat ere bada. Baina tira, gu ere bat gatoz, Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtsaren txostena amaitzea beharrezkoa eta komenigarria deritzogu.

Joseba Vivanco Retes: bada, ados gauden gauza gutxietako bat izango da, izan ere azkenean, hemen ez dugu esaten 2018an Artziniegako Udalak edo Arabako beste edozein Udalek zenbat jasoko duten, Mercedes geratu ala ez geratzearen baitan. Edo Eusko Jaurlaritzak adosten duen banaketa, hots, lurralde bakoitzak pastelego zein zati hartzen duen. Eskatzen ari garena da 1997. urteko arau bat moldatu dadila, egunera dadila, alda dadila, 2017-2018 urtera ekar dadila. Hori da hemen eskatzen dena, izan ere, azken batean egiten den araua ez dago Mercedes aurten hemen geratzearen edo datorren urtean joan nahi izatearen baitan.

Alkatea: ez, esan dudana da, azken batean, zenbaitetan, gai garrantzitsuak direla eta badutela bere garrantzia.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina aldizkako gaiak dira. Hitz egiten ari gara 1997. urtekoa den araudi bat aldatzeaz, eta kontua dela Arabako udalerriei egitea mesede gehiago eta eguneratzea. Azkenean ez gara hitz egiten ari gauza puntualaz, ezta aurten tokatuko zaigunaz ere, baizik eta txosten horretan ezar daitezela behingoz 2018-2019-2020 urteetarako, edo datozen urteetarako, x urteetarako, udal finantzaketa guztia arautzeko irizpideak. Ez gara kasu zehatzez edo kasu puntualaz hitz egiten ari, horretaz hitz egiten ari gara.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).



Abstentzioa:  
Batere ez.  
Aldeko botoak:  
Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);  
Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

## **7.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.**

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2017. urteko 249 eta 304 bitarteko Dekretuak direla aipatu du, eta aurreko saioan sartu ez genituen 243 eta 244 dekretuak barne daudela.

Alkatea: Baduzue ezer esateko?

Arkaitz San Jose Martinez: nik zalantza pare bat nituen dekretu jakin batzuen inguruan, eta pentsatzen dut orain onartzen direla, izan ere, beno, uste dut abenduan dela, edo azaroan, horrela egin behar baita, herritar batzuei elikagaien Bankurako sarbidea emateari buruzkoak. Horri buruzko bi galdera dira, izan ere, alde batetik ez dut gogoan beste urte batzuetan ikusi izana, agian ahortzi egingo nuen, orduan, hori Alkatetzaren eskumena izan da betidanik edo Alkatetzako dekretuak dira arrazoi bereziren batengatik?

Alkatea: ez, orain egiten hasi da zergatik bai eta zergatik ez justifikatzeko nolabait.

Arkaitz San Jose Martinez: eta bigarren galdera da ea irizpideak nork jartzen dituen, izan ere, bada gauza bat niri, partikulariki, eta nire adiskideekin hitz egin dut, arreta eman didana. Jende bati elikagaien bankurako sarbidea ukatu egiten zaio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenten jasotzaile izateagatik. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta diru-sarrerak ez dutela ziurtatzen delako pertsona jakin batzuentzat ezartzen den errenta bat bada, gutxieneko diru-sarrera bat izan dezaten, gutxieneko diru-sarrerak izate hori nahiko arrazoi den edo arrazoi nabarmena den elikagaien bankurako sarbiderik izan ez dezazun. Irizpide hori guk jartzen dugun edo nork jartzen duen irizpide hori, Arabako elikagaien bankuak, gizarte-langileek edo nork.

Inmaculada Vivanco Retes: uste dut elikagaien bankuak ezartzen dituela irizpide horiek. Gogoan dudanez, hitzarmena egin zenean han ezartzen zen, eta uste dut puntuetako bat horixe zela. Inolako laguntzarik ez jasotzea, ezta DBE errenta ere. Uste dut bazela salbuespenen bat, hots, DBE errentaren jasotzailea izan, eta kide kopurua, agian familia-unitatean 6 kide baziren, edo halako zerbait, DBE errentaren jasotzaile izan arren, elikagaien bankurako sarbidea zuten. Baina elikagaien bankuak ezartzen ditu baremo horiek. Ez dakidana da, uste dut irizpide horiek ez daudela bateratuta lurralde guztietan, esate baterako, Gurutze Gorriak eramaten dituen irizpideak, aparte bere elikagaien bankua kudeatzen duena, Arabako elikagaien bankuarekin ez bederen. Nik ez dakit une honetan aski bateratutako irizpiderik dagoen. Uste dut horretan lanean ari zirela, izan ere, azaroan izan genuen bilkura batean, Artziniega, Laudio eta Amurrio Arabako elikagaien bankuko ordezkariekin izan ginen, azaroan egin zen bilketa orokorraren aurretik, eta aipatu ziren gaien artean hori atera zen, ez zeudela irizpide oso uniformeak elikagaien bankuaren prestaziora iristeko.

Arkaitz San Jose Martinez: nik horri dagokionez badakit zerbait, izan ere, egia da erakunde bakoitzak nola banatu erabakitzen duela, eta esate baterako Caritasek ez du inolako eskakizunik eskatzen, badakit elikagaien bankuak Udaleko gizarte-langileekin koordinatzen duen erregistro bat duela eta administratibotik bertatik ezartzen du nori ematen zaion eta nori ez. Esaten da, pertsona honek eskakizunak betetzen ditu ala ez ditu betetzen. Uste dut, izan ere, ez dakit elikagaien bankuak zein neurriara arte erabil ditzakeen datu pertsonalak.

Inmaculada Vivanco Retes: esate baterako, Amurrioko banaketa hori Laguntza Elkartek egiten du, eta beren irizpideak jarraitzen dituzte.

Arkaitz San Jose Martinez: ez. Laguntza? Laguntzak Amurrioko Udaleko gizarte-laguntzaileek adierazitakoaren arabera egiten du banaketa.

Inmaculada Vivanco Retes: baina beren irizpideak erabiliz ere bai.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, bai, hori badakit.



Inmaculada Vivanco Retes: badakit, bilkuran esan zutelako.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, egia da, era berean zera esaten dutela “bada, zu aurrekoan kezkatu ez bazinen, horrenbesteko premia ere ez duzu izango...” baina tira, esleipendunak nor diren erabakitzen dutenak...

Alkatea: edozein kasutan, agian ongi legoke herritarren batzorde batean horri buruz hitz egitea, eta ez hori bakarrik, elikagaien bankuaren beraren kudeaketari buruz ere bai, bankuaren beraren kudeaketarekin lotuta izaten ari garen arazoei buruz.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

## **8.- Udal kudeaketaren kontrola.**

- Joseba Vivanco Retes: ohi bezala, baditugu zenbait gai. Batek Gaztelekuaren gaiarekin du zerikusia. Ez gara sartuko kudeaketa baloratzeko gaiarekin, izan ere, bi hilabete eskas daramatza, hiru hilabete, eta hurrengo hiletan izango da denbora zer-nolako bilakaera duen ikusteko, zer-nolako onarpena dagoen, zer egiten den eta hori guztiori. Baina EAJ alderdiaren Udal Gobernuak eraikinarekin berez zer-nolako planak dituen esatea nahiko genuke, hau da, obra Udaletxe Zaharra birgaitzea izan da Gaztelekua egiteko, Gaztetxokoa egiteko, horrela jarri baita izenburuan, horrela izendatu da, eta horregatik birgaitu da. Azkenean ikusi dugu urrian eguneroko presentzia asteburuetan gutxi gorabehera 26 pertona ingurukoa izan dela, eta Artziniegan 12-18 urte bitarteko biztanleria 130 pertsonakoa da, baina azken batean apur bat kezkatzen gaituena da Gaztelekua beheko solairura muga daitekeela, hasi zen lekuan apur bat, eta azkenean 20 metro koadro baino ez dira, ez dakit zenbat izango den. Gustatuko litzaiguke jakitea, etorkizunera begira, beste bi solairuak Gazteleku modura erabiltzeko planak dauden. Hots, ez dadila izan Udaletxe Zaharra Gaztelekua hartzeko birgaitu izana eta azkenik ikastaroetarako erabiltzea, bilkuretarako... baizik eta eraikina, oso-osorik, Gaztelkua hartzeko erabil dadila. Orduan, jakin nahiko genuke zer-nolako planak dauden hori horrela izan dadin, hau da, ez dezagula lehen solairua erabili edo bestea aldi behin erabili ez dakit zertarako, baizik eta, egiaz, egin duguna Gaztelekua hartzeko birgaitzea bada, hura izan dadila egiaz Gazteleku bat.

Maria Lorente Burgos: Gaztelekuko azken solairuko giltzak, kasu honetan, Aintzane ditu, eta bertan dauden irizpideen eta Gazteluan bertan antolatzen diren jardueren arabera, asteburuetan hara igo ohi dira. Hau da, neska-mutikoen une jakin batean espazio gehiago eskatzen duen jardueraren bat egin nahi badute, ez dago inolako arazorik, eta ireki egiten da. Gaztelekuaren barnean jarduera eta lantegi jakinak antolatzen dira, eta orduan ere ireki egiten da. Ondoren, esate baterako, Gabon hauetan, izan dira espazio gehiago eskatu duten aldi behingo jarduerak eta erabili egin dira. Adibidez, astearte honetan bertan Boca Bits komedia delakoa egin da, rap moduko bat, eta ondoren askari bat egin da haientzat, eta goiko solairua erabili da. Ez badago aldizka eserita egon eta mahai-jokoak egitea ez diren planak ez da beharrezkoa espazio gehiago, betiere monitoreak aztertzen ez badu, goiko solairua berak eman nahi dion erabilerarako dago. Horretarako dituzte giltzak. Ondoren, aldi behin, ikasturtean zehar lantegi zehatzagoak egin nahi badira, hori bada, baina esaten dizudan moduan asteburuetan antolatzen diren jardueren irizpidearen baitakoa da gehiago. Asteburu bakoitzean, gutxi gorabehera, plan bat daukate antolatuta, bada ostiraletan beren kabuz ibiltzen uzten zaie gehixeago, aste osoko erritmoaz deskonektatzeko, eta larunbat eta igandetan jarduera gehiago antolatzen dira, esate baterako, Gabonetako zuhaitza egiteko lantegia, eskumuturrena, borlana, gauza horiek beren kabuz kudeatzen dituzte. Beraz, ez diegu esan behar “gaur erabil dezakezue”, ez.

Joseba Vivanco Retes: kontua da pixka bat azken batean, hasiera batean zuk diozun moduan, beheko solairua erabiliko delako, eta azkenean den bezalakoa da, eta sartzen direnak sartuko dira, sofa bat, eta esertzeko lau toki. Ez dakit etorkizunera begira planteatzen den goiko solairua ere irekita egon dadila egun horretan lantegi bat egon zein ez egon edo egun horretan jarduera



zehatzen bat egin zein ez egin, modu horretan, beheran egon daitezten adin jakin bateko neska-mutikoak eta, azken batean 12-18 urte bitarteko neska-mutikoez hitz egiten ari baikara, taldea nahiko zabala eta ezberdina baita, eta goran egon daitezten beste adin bateko neska-mutikoak, jolasean...

Maria Lorente Burgos: hori, esan dizudan moduan, egiaz egiten denaren irizpidearen arabera da, neska-mutikoez justifikatzen badute goiko lokala erabili nahi dutela zerbaiterako, ez dago inolako arazorik uzteko. Erantzukizun-paper bat sinarazten da, eta igotzen direnak, hau da, asteburuan inori bururazten bazaio playback bat egin nahi duela, entsegua egin nahi duela eta igo egin nahi duela, ez dago inolako arazorik. Hura haiek erabiltzeko dago eta badakite, baina ez zaie irekiko besterik gabe igo egin nahi dutelako eta monitorearen presentziatik kanpo egon nahi dutelako.

Joseba Vivanco Retes: ez dut esaten monitorearen presentziatik kanpo. Azken batean, pertsona bat dago eta bi solairu, hiru solairu, daude, baizik eta behera seikote bat iristen bada, eta barruan beste hamar badaude, bada zaila da guztiak hor egotea.

Maria Lorente Burgos: arrazoiren bat badago, esan "aizu, pictionary jokoan jolastu nahi dugu, beheran ez dugu lekurik eta goran bizpahiru mahai daude, aulkiak daude, gora igo nahi dugu jolastera". Berak komenigarritzat ikusten badu, utzi egiten zaie. Baina beti bere irizpideen arabera.

Joseba Vivanco Retes: gehienbat ez dadila esan "soilik funtzionatzen du, eta gainerakoak aldi behin".

Maria Lorente Burgos: ez, ez, gertatzen dena da bada gora igotzea besterik gabe pipak jatera bada ez, horretarako ez zaie irekitzen.

Joseba Vivanco Retes: genuen beldurra horixe zen pixka bat, azkenik astean zehar ikastaroetarako erabiltzeko lokal modura geratzea eta Gaztelekua txoko txiki modura geratzea.

Inmaculada Vivanco Retes: uste dut erabiltzen den irizpidea dela, erabileraren arabera, astean zehar bai erabiltzen dute egiten diren ikastaroetarako, eta asteburuan, eta egiaz nik esan ahal dizkizut Gabonetako 15 egun hauetan zenbait talde eta elkartek egindako eskaerak Udaletxe zaharreko instalazioen bat erabiltzeko, une oro kontuan hartu da espazioetako bat libre egongo zela, dagoeneko programazioa eginda egon zein ez egon, erabil zezaten eta Gaztelekua hartzeko dagoena, inolaz ez da izan asteburuan erabiltzeko. Astean zehar bai, baina bi solairuak ez dira erabili, une bakar batean ere ez. Solairu bat Gaztelekuak erabiltzeko egon da eta dago, edozer sortzen dela ere. Hori da jarraitu den irizpidea.

Joseba Vivanco Retes: jakiteko zen, besterik gabe. Eta pentsatzen dudanez aurrera begira funtzionamenduari buruzko balioespena egingo dela, zer-nolako martxa duen, nola funtzionatzen duen, bada, hitz egingo dugu.

- Joseba Vivanco Retes: bazegoen beste gairen bat, urte osoan eta denbora guztian ia ohikoa den beste bat. Irtenguneen gaia. Uste dut azkeneko aldi berean ere galdetu genuela, Alkatetzatik izan ote den harremanik Bide, azpiegitura, errepide Diputatuarekin.

Alkatea: bai, berarekin hitz egin nuen asteartean, dagoeneko behin betikoz egiteko, beno, badakigu 100.000 euroko partida nominatibo bat dagoela, eta tira, bada garaia aspaldi egiteko zen bilkura hori egiteko, orain badugu datu berri bat, eta ikusiko dugu nola heldu.

Joseba Vivanco Retes: azken batean, guri bederen, iruditzen zaigu, presa asko saldu zigutela Artziniegako Udaletik irtenguneen gaiarekin zerbait egin genezan, batez ere onar genezan uste dut maiatzean izan zela, mozio bat ia korrika eta presaka Aldundiak izan zen tresna bat Bizkaiko Aldundira negoziatzera joan ahal izateko, sei hilabete igaro dira, ez dugu bilkura egin izanaren berririk izan, ez dugu bilkura egin ote den berririk izan, ziurren ez zen egingo, orduan noski, apur bat ikusten dugu Udalak utzi gaituela, ez dakit, bat-batean ikusten dugu 100.000 euroko partida Eusko Jaurlaritzak onartu duena Alderdi Popularrarekin egindako negoziazio horien barruan, eta joan den egunean Gordexolako Udaleko osoko bilkuran uste dut Alkateak esan zuela berak partikularki, berak, ez zuela partida horren inguruko berririk, eta harriztekoa da Eusko Jaurlaritzak Gordexolara bideratzeko partida bat onartuta, berak, azken batean alderdi berekoak izanik, ez jakitea Gordexolan esku hartuko dela irtenguneen gaiarekin. Ez dakigu Bizkaiko Aldundiak zer egingo duen bere aurrekontuarekin, baina azken batean badirudi presa sartu



zigutela, guk Udalean egin beharreko guztia bizkortu egin genuen, eta orain beste instituzio batzuetan dagoen patxada dago. Batez ere, errepideen Diputatuari, Udalarekin gehien konprometitu zena izan baitzen, tira, nik uste dut gai honekin zer gertatu den jakin gabe sei hilabete nahikoa denbora dela esateko “aizu, zer egin duzue sei hilabete hauetan”. Espero dugu, orain bederen...

Alkatea: egoera ez da berdina, izan ere, lehen ez zegoen finantzaketarik, eztabaidatu egin behar zen ea nork...

Joseba Vivanco Retes: bai, baina azken batean Eusko Legebiltzarrak onartu dituen 100.000 euroren kontua negoziazioko gauza puntual bat izan da. Nik eman egiten dizut, zuk eman egiten didazu. Orduan, azkenean hor sortu da. Bestela, ez zen sortuko. Arabako Aldundiak esku hutsik negoziatu beharko zukeen, ez eskuak beteta, hau da, edozein modutara ere negoziatu egin behar izango zuela. Denborari buruz ari naiz, uste dut patxada handiz hartu dutela, gu hemen egon garenean urtebete, urtebete pasatxo, gaia bizkortu nahirik. Halaber, Aldundiari jakinaraztea sei hilabete daramatzagula haiek zerbait esateko zain. Oso ongi dago irtenguneen kontua saltzea baina saia daitezela gu informatzen eta nola kudeatuko duten jakinarazten.

- Joseba Vivanco Retes: bazen beste gai bat, ez dakit azkeneko osoko bilkuran atera ote zen, eta Udalak erantzuteko duen moduarekin du zerikusia, uste dut hori ere atera zela, Alkateak ere erantzun zuen, baina azken batean ez gaitu asetzen. Udaleko Facebookaren gaiari nola erantzuten dioten. Joan den egunean, abenduaren 23an, auzotar batek aipamen nahiko kritikoa egin zuen hemen atzealdeko plazan egin zen muralari dagokionez berdintasunaren gaiarekin, lankidetzan edo gazteria arloaren barruan pintatu zena, eta Udalak erantzuna eman zuen, eta egia esan aipamena nahiko gogorra eta kritikoa zen, eta Udalak erantzun egin zion, ongi erantzun zion, gaia nola zegoen ikusita eta abar, eta besterik gabe diplomatikoki, eta kito Baina joan den urriaren 31tik hona sei auzotarrek aipamenak egin dituzte Udalaren Facebookean eta horri baino ez zaio erantzun, orduko hartan. Orduan, azken batean, arreta ematen digu, izan ere, osoko bilkuran guk gai horri buruz galdetu genuen azkeneko aldiz, Alkatearen erantzuna finean zera izan zen “merezi duenean soilik erantzuten dugu”. Tira, nik uste dut orain Gabonetan Udalak ipini duen argazkiaren inguruan galdetu duen gainerako jendeak, galdetu baitute musika-entzunaldiak ea zergatik egiten diren azken batean egokiak ez diren eta edukia galtzea dakarten lekuetan, norbaitek adierazten badu edo aipatzen badu Artziniegako Udalak berdintasunaren gaiarekin atera dituen irudien barruan jardueraren bat falta dela, inork galdetzen badu, kexatzen bada, edo protesta egiten badu, edo adin nagusikoekin kontuarekin duela bizpahiru hilabete egin zen paella-jana kritikatzan badu, eta Udalak erantzuten ez badio, zer da kontuan ez duela merezi pertsona horiei erantzuna ematea, baina beste batzuei bai? Izan ere, gainera, erantzuna eman zaion beste pertsona horrek beste behin ere idatzi zuen eta ez zaio erantzun, orduan, zera ematen du “beno, nahi dutenean erantzuten dute, ongi datorrenean, merezi duenean”. Baina, gero gainera, kurioski, duela aste pare bat, bere garaian Udalaren Facebookaren gaiarekin kexu azaldu zen auzotar bati, neska bati, idatzizko erantzun bat eman zitzaion, eta ondoren galdera bat aurkeztu zuen idatziz, Udalaren erregistroan. Eta joan den egunean Alkateatzatik pertsona horri idatziz erantzun zitzaion zera esanez “Facebook profila irekitzearen helburua da Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa eta elkarrekintza bultzatzea”. Elkarrekintza. Elkarrekintza, bi pertsonen artean ematen den ekintza. Bada bai, Facebook horretarako da, elkarrekintzan aritzeko, bada tira, nik uste dut “merezi duenean erantzuten dugu” esatea soberan dagoela. Erantzuna ematen da ala ez. Nik uste dut pertsona horri joan den egunean muralaren gaiarekin erantzun zitzaion bezala, erantzun diplomatiko samarra eman zitzaioela, eta eztabaidan sartu gabe, izan ere, erantzun zitekeen eta orduan gaia itxi, edo deitu egiten zaio edo dena delakoa, gainerako pertsonen aipamenean bat ipintzen zaie, are kritikoa, edo ez, edo iradokizuna, nik uste dut diplomatikoki ere erantzun ahal zaiela, inolako zentzurik ez duten salbuespenik egin gabe. Nik uste dut itxura txarra ematen dela inork ikusten duenean norbaitek galdera egin duela eta ez zaiola erantzun, nik uste dut hori ikusten ari daitezkeen gainerako herritarren aurrean bada Udalak itxura txarra ematen duela, izan ere, esan dezakete “beno, zergatik ez du erantzuten?” Galdetzen duenak arrazoia izango du? Erantzun egiten da ala ez da erantzuten, hala uste dut nik. Erantzun daiteke eztabaidan sartu gabe eta bikain eta diplomatikoki, joan den egunean egin zen moduan, eta kito.





Baina nik uste dut, Udal Gobernuaren aldetik edo Facebook orrialdea kudeatzen duenaren aldetik, irizpide bat jarraitu beharko litzatekeela, ez dadila izan merezi duenari erantzutea edo ez erantzutea. Ez dut uste tragedia bat denik modu atsegin edo diplomatikoan erantzutea, edo argituz. Artekale kalea moztu egingo zela zioen bandoa atera zenean, bandoa mozketa egingo zen egun berean atera zen. Horren aurrean pertsona batek zera ipini zuen “mila esker baina halaxe doaz gauzak, abisua ematen badiguzue...” ez da ezer kostatzen erantzun eta zera esatea “bada, ez dakit... goizean sortu den matxura batengatik izan da”. Nik uste dut ez dela ezer kostatzen, ongi geratzen da, eta mundu guztia pozik. Kontuan izan dadila gomendio hori.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut, askotan horri dagokionez agian badirela berehalakotasuna eskatzen duten erantzunak, eta galdera hori edo informazio hori hurrengo egunean edo bi egunetara ikusten baduzu, berdin da, agian dagoeneko erantzuteak ez du zentzurik, izan ere, dagoeneko... ez dakit, niri iruditzen zait. Agian erantzunaren berehalakotasunaren araberakoa dela kontua.

Joseba Vivanco Retes: izan ere, soilik begiratzen baduzu orain sartzen bazara eta atzerantz egiten baduzu, eta ikusten baduzu jendea... , ea, urritik sei direla alajaina, gainera ez da jendea hor dagoela ekin eta ekin “aizue, nolakoak zareten, aizu zein jatorrak”, ez, sei pertsona baino ez dira urritik aipamena egin dutenak. Egun bat, bi igaro arren, zu itzuli egiten zara, ikusten duzu jendeak galdetu egiten duela eta Udalak ez duela erantzuten. Udalak berak ere itxura txarra ematen du. Elkarrekin dago? Nahi dugunean, nahi badugu bai, ez badugu nahi ez. Harrigarria erantzutea da. Besteak esan dezake eta honi zergatik erantzuten dio eta niri ez dit erantzuten? Nik merezi dut ala ez? Ez da inolako tragedia, eta ez da irizpide asko izan behar, eta ez dut uste denik nik ez dakit zer, guztiari erantzuteko, noski, inolako eztabaidatan sartu gabe. Erantzun simple bat ematearekin aski da. Esan “aizu begira, informazio hori eman ahal dizugu hemendik pasatzen bazara” eta berak irakurri eta esaten du “begira, bikain, erantzun egin dit”. Azken batean erantzutea besterik ez, nire iritzia da.

Alkatea: mila esker ekarpenagatik Joseba.

- Joseba Vivanco Retes: eta azkeneko gauza bat nire aldetik, aurreko osoko bilkuran ere atera zena, eta pentsatzen dut aurrekoan ere bai. Gai hori zera da, egia esan desatsegina da berriro ekarri behar izatea, izan ere, gure ustez, itxita geratu ez den gai bat da, eta udaletxean gizarte-zerbitzuetan ematen den arretaren gaiarekin du zerikusia. Azkenaldian hemen eztabaidatu dugu gizarte zerbitzuetako laguntzaile administrariarena joaten zen jendearen pribatutasuna errespetatzen ote zen, eta azken osoko bilkuran, Alkatezatik gaia itxiztat eman zen balizko akatsa konpontzeko hartu ziren neurriekin, gure ustez, akatsak arretan zegoen pribatutasun faltarekin zuen zerikusia, baina gu oraindik ez gaude konbentziturik, eta ikusten dugu ezetz, azkenean ez dela behar bezala geratzen. Gaur, osoko bilkura zegoela aprobetxatuz, goiko solairuan gizarte zerbitzuen arreta ere bazegoela aprobetxatuz, igo egin gara, 10 minutu eman ditugu esertzeko dauden bi sofa txikiak dauden zonaldean, urrun, merindadeen irratiko musikarekin, hori baita herri honetan sartzen den bakarra eta bortitz sartzen da, eta hor egon gara zain. Unai eta ni egon gara 10 minutu inguru, beste hiru pertsona ere bazirelako, bat artatzen eta beste bi. Itxaroten ari ziren beste bi pertsonak ez zeuden gu geunden zonaldean. Zonaldean egon dira hara-hona, edo arreta ematen den zonaldean, hots, guztia entzuten zen. Musika dagoen zonaldean bazeuden egia da nahasi egiten dela zarata, hitz egiten direla bai, baina hitz egiten ari direna ez duzu entzuten. Gero hurrengo pertsona sartu da eta itxaroten ari zen beste pertsona denbora guztian han egon da alboan, leihotik ikusiz eta han-hemenka. Nahi bazuen guztia ongi entzuten zuen. Ondoren laguntzailearekin hitz egin dugu, aldatzarekin ea zer moduz dauden galdetu diogu, eta arazorik ba ote den, eta esan digu egoera hori ez dela onena, izan ere, badira beste zenbait kasu, esaterako, aurretik etorri den pertsona nagusi bat egon denean ozenago hitz egin behar da, egon dira hemen negarrez hasi diren pertsonak, hots, entzuten duzunaz aparte egoera horietan inori ez zaio gustatzen hor egotea eta, noski, orduan ikusten dugu armairu batzuk ipintzea edo irratia ipintzea ez dela irtenbidea, ez da delikatu samarra, eta konprometitua, den zerbitzu baterako irtenbide egokiena, goran beste irtenbide batzuk daudela uste dugunean. Hura pladurrezko horma batzuekin isolatu eta laguntzaile administratiboak lan egiteko eremu txikia isolatzea, eta inork ez du zertan ezer entzun, edo udal arkitektoak edo



gizarte-laguntzaileak lan egiten duten lokalera eramatea, dauden eskailerak kenduz, arrapala batekin egin daiteke hori, eta lokal horretan banaketa bat egitea, alde batetik laguntzailea egoteko eta beste aldetik gizarte-laguntzailea egoteko. Eta ondoren moldatuko dira arkitektoa eta aparejadorea. Hau da, azken batean iruditzen zaigu nolabaiteko estalkia ipini dela, baina oraindik badira zirrikituak. Orduan, gauzak hobeto egin daitezke. Ez dugu ulertzen zergatik ez den honakoa isolatzearen alde egiten, edo ez isolatzea, pladurrezko zera batzuekin 3x3ko konpartimentu txiki bat egitea, edo arkitektoak edo aparejadoreak begira dezala hor dagoen beste barruti horretan irtenbideren bat egin ote daitekeen, eskailera batzuk daude hor baina ziurrenera eskailera horiena konpon daiteke arrapala batekin, eta formula bat bilatu ziurrenera guztiak pozik eta hobeto egoteko. Eta ez dadin egon konpromisorik, eta konprometituta den ezer. Izan ere, pentsatzen dugu hantxe bertan badela irtenbidea, orduan ez dugu ulertzen zergatik ez den begiratzeko irtenbidera, hura emateko.

Alkatea: beno, ikusten jarraituko dugu. Hasiera batean badugu burutzeke dugun ekintza bat, hemen aparteko bulego bat egitea da, Bake Epaitegirako beharrezkoa izango dena, agian gizarte-zerbitzuekin parteka daiteke. Agian hori da irtenbidea.

Joseba Vivanco Retes: bada hori izan, edo goiko beste horiek izan, baina har dadila irtenbide bat, izan ere, azken finean, musika ipintzen da baina hara joaten zara bertatik bertara eta egia esan edozein ohar daiteke hitz egiten denaz.

Alkatea: bai, egia da behin-behinean, eta Mari Joserekin hitz egiten baduzu, egiaz arazo bat dagoela ikusten duzu, zinegotzien aretoa ere hor dago, bada joan dadila hara pertsonarekin eta han artatu dezala.

Joseba Vivanco Retes: bai, noski, baina han arrapalaren arazoa ere badago.

Alkatea: eskailerarena.

Joseba Vivanco Retes: eskailerarena. Betaldean, gizarte-laguntzailearena joateko ere arazoak daude, inoiz pertsonaren bat eskaileretan erori egin dela ere esan digute. Izan ere, gizarte-laguntzailearena joateko jaitzi egin behar duzu eta adin nagusiko jendea joaten da eta eskailerak ditu. Igoailuarekin konpondu genuen, baina gero eskaileren arazoak jarraitu egiten du. Orduan, azken batean, ez dadila hau behin betikoz hala utzi, aitzitik, bila dadila irtenbide bat egiaz behin betikoa izango dena.

- Arkaitz San Jose Martinez: nik tontakeri bat. Badago irizpide jakinik Osoko Bilkuran botoa emateko? Lehenago ematen da botoa... edo? Izan ere, ez da lehen aldia ikusten dudana Gobernu taldea dela botoa ematen azkena. Aldeko botoak ematen dira, abstentzioak, aurkakoak, batzutan modu batera, zuek azkenak bazarete botoa ematen, hau da, kontrari bozkatzeko baduzue, eta kontrako botoak egiten badira, abstentzioak, aldeko botoak zuek alde bozkatzeko baduzue.

Alkatea: normalean kontrako botoak, abstentzioak eta aldekoak da hurrenkera.

Inmaculada Vivanco Retes: uste dut lñigo tronpatu egin dela egitean.

Arkaitz San Jose Martinez: baina beti zuek bozkatzeko azkenak zaretenean gertatzen da. Ez da lehen aldia.

Inmaculada Vivanco Retes: ez da ohikoa.

Arkaitz San Jose Martinez: ez, normalean aldeko botoa ematen dugulako.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, beti kontrako botoak, abstentzioak eta aldeko botoak izaten da.

Alkatea: Gaur esan al dut aldeko botoa?

Inmaculada Vivanco Retes: galdetu duenean...

Arkaitz San Jose Martinez: gurea zenean aldeko botoak, abstentzioak, kontrakoak esan du...

Alkatea: ah, bada, ez naiz konturatu.

Inmaculada Vivanco Retes: ez nau entzun, izan ere, hasi denean esan diot "alderantziz esan duzu".

Arkaitz San Jose Martinez: ados, ados.

Alkatea: ez naiz konturatu, barkatu.

Arkaitz San Jose Martinez: ez doa inora, suposatzen da dagoeneko botoa erabakita dugula, baina ez baita lehen aldia. Agian itunak daude, ez dakit, ikus dezagun zer egiten duen Josebak, gaur ez dago, baina tira...



- Alazne Lafragua Ureta: nik, ezer ez, pare bat gauza, gainera ez naiz oso ongi aurkitzen, beraz azkarra izango naiz. Lehendabizikoa, badago asmorik Udalean sartzen dituzten idatziren bati erantzuteko noizbait? Azkar.

Alkatea: bai, gustatuko litzaziguke. Guztiak ez ditugu erantzuten.

Alazne Lafragua Ureta: ez, ez duzue bakar bat ere erantzuten.

Alkatea: beno, bai, baten bat erantzuten dugu.

Alazne Lafragua Ureta: beno, bada, baten bat erantzuten baduzue, are okerrago, izan ere, horrek esan nahi du Facebookeko gaira itzultzen garela eta garrantzitsua deritzogunari erantzuten diogu, eta hala ez dela usten dugunari ez diogu erantzuten. Uste dut garrantzitsua dela guztiei erantzuten hastea, besterik ez bada "aztertzen ari gara". Errepikatu egiten den zerbait baita, eta nik tira, legealdi hau daramat, baina aurretik idatziren bat sartzea egokitu zaidanean sekula ez zen erantzuten. Orduan, konpondu beharreko zerbait dela uste dut.

- Alazne Lafragua Ureta: bi, ea asmorik dagoen Parte Zahar osoko aparkalekuen gaiari irtenbidea emateko. Tamalgarria da. Eta arazoa futbol-zelaira ere hedatzen ari da. Jendea aparkatzen hasi da, ez horrela, ez dakit nola izena duen, zuzenean ez, baizik eta alderantziz. Bateria, paraleloan. Aparkalekuko marrak ezabatzen ari dira, zoladura altxatzen ari da, eta jendea nahieran aparkatzen hasi da. Horrez gain, pibotearen parean aparkatzen dute, uste dut hor eskua sartzen hasi beharra dagoela.

Alkatea: hori Ertzaintzarekin hitz egingo dugu. Aldizka pasatzen dira. Eta isunak ipintzen dituzte.

Alazne Lafragua Ureta: paseatzera pasatzen dira bai.

Alkatea: eta guk batzutan, gehienetan, ez dakigu ea...

Alazne Lafragua Ureta: arazoa gauean dago batez ere. Jendeak kotxea nahi duen tokian aparkatzen du, eta anbulantziaren bat pasa behar bada ez da pasako jakina, gune bat baino gehiagoan. Orduan ezer gertatu aurretik, agian irtenbideren bat ipini beharko zaio. Eta ondoren, ez dakit zerbait erantzun nahi duzun, baina azkena, lñigo zerbaiti erantzun nahi diozu edo jarraitu egingo dut?

Alkatea: ez, ez, jarraitu.

- Alazne Lafragua Ureta: eta dagoeneko azkena, iaz, uste dut irailean izan zela, lehen zegoenaren gaia aipatu nuen, txatarregi zaharraren gaia, Garbigune bilakatu zena, eta euria egiten zuenean zikinkeria guztiak errekan amaitzen zuen. Iaz baietz esan zenidaten, begiratu egingo zela eta abar, eta urtebete pasatxo igaro da eta ez da inor igaro handik ikustera. Uste dut orain 2018. urtea hasten dela, agian honi guztioni eskua sartzen hasteko unea da.

Alkatea: kasu honetan bai egin da garbiketa bat. Eusko Jaurlaritzak garbiketa bat egin zuen.

Alazne Lafragua Ureta: garbiketa bat egin zuen baina oraindik gauza andana dago han. Jendeak gauzak uzten jarraitzen du. Nik egun batean jaistera gonbidatzen zaitut eta ikusiko dituzu garbigailuak, han egon behar ez luketen gauza pila bat ikusiko dituzu.

- Unai Gotxi Kastrexana: beno, aipatu genuen aurreko osoko bilkuraren batean, baina Alaznek esan duenaren harira, abenduaren 12an, oker ez banago, idatzi bat sartu zuten, auzotar batek idatzi bat sartu zuen hemen atzealdeko, Garai Plazako, Haurren parkeko iturria gaizki zegoela esanez. Beno gaizki ez, ziprztin asko jaurtitzen ditu, gogorra da, haurrak blai eginda ipintzen dira... hori guztiori. Osoko bilkuraren batean komentatu genuen, ez dakit erantzuteko asmorik izango den.

Alkatea: hori aztertzeke dugu. Eta erreklamazio gehiago izan ditugu, eta hor esku hartu beharrean gaude.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, ez dakit idatziz ere erantzuteko asmorik dagoen, aparte, baina, abenduak 12.

- Unai Gotxi Kastrexana: beno, eta azken legealdietako gai nagusiari helduko diot, espaloien obrari. Badakigu gatazkak daudela Aldundiaren eta Moyua enpresaren artean, baina



tira, Aldunditik erremate txikiak egiten hasiko zirela aipatu zen. Eta bada zeresana ematen ari den erremate bat, Jauregiko ispiluarena. Izan ere, ez da kontua auzotar ugarik dagoeneko eskatuta dutela bakarrik, baizik eta, 2018ko lehen idatzia, Palacio Urbanizaziokoa da, berriro jar dezatela eskatuz.

Alkatea: eta jar daitezela biak, bai. Eta Aldundia arduratu behar zen hartaz, baina oraindik ez du ezer egin.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta ez dakigu beste ezer?

Alkatea: gu esan eta esan ari gara.

Unai Gotxi Kastrexana: baina hori da beti ematen didazun erantzuna Iñigo. Esan eta esan ari gara. Bada, itxuraz, ez behar bestetan.

Alkatea: bada, hori da esan ahal dizudana, hori da egiten ari garena.

Unai Gotxi Kastrexana: Ez dizute datarik eman? Ez dizute esan noiz?

Alkatea: errepideetako zaintzailea askotan izan da ikusten baina ezin dizut datarik eman. Oraintxe bertan ezin dizut datarik eman.

Unai Gotxi Kastrexana: ez da kontu berria ordea. Izan ere, uste dut honi buruz galdetu genuen lehen aldia 2017ko martxoaren 2an izan zela, ia urtebete ispilu madarikatuekin. Ispiluaren legealdia ari da bilakatzen hau.

Alkatea: baietz, badakidala, ispilua jartzeke dagoela. Eta Aldundiak hori egiteko konpromisoa hartu zuela.

Unai Gotxi Kastrexana: orduan erantzunik gabe. Ziztatuta dauden espaloengatik ere ez dizut galdetuko, ezta?

Alkatea: bada, ziztatutako espaloiei dagokienez, arkitekto teknikoari eskatu diot horien inguruko balorazio bat eta azterketa bat egiteko.

Unai Gotxi Kastrexana: Idatzian adierazi dizkizugun zonaldeen inguruan?

Alkatea: gaizki dauden zonaldeei buruz.

Unai Gotxi Kastrexana: baina herriko gainerako guneak ere berrikusiko zenituen. Bada, bazen garaia, izan ere, 2015ekoa da sartu genuen lehen idatzia.

Alkatea: eta hori, eta espaloietan egin ditugun zenbait ekintza ere bai. Gaizki zeuden beste zenbait zonaldeetan ere esku hartu baitugu. Baina beste batzuk burutzeke daude, eta askotxo ditugu burutzeke. Askotxo ditugu gaizki.

Unai Gotxi Kastrexana: 2015az geroztik.

Alkatea: eta lehenagotik.

Unai Gotxi Kastrexana: baita ere. Baina gure idatzia 2015. urteaz geroztik dago udaletxean. Egin dadila.

Esan dizut arkitekto tekniko ari ikusten ari dela, eta suposa dezakeenari buruzko balorazio bat egingo du. Berezko baliabideekin egin dezakegun, kontratatu egin behar ote dugun...

Unai Gotxi Kastrexana: pozten naiz.

- Joseba Vivanco Retes: gaur goizean igo egin gara, izan ere, Joseba ez zegoenez, joan den egunean Josebari galdetu nion baina hark ere ez zekien, eta gaur goizean igo gara ikusteko Erretako zabu ospetsuak han ote zeuden jadanik, eta egia esan berberak daude oraindik, eta duela hilabete batetik edo bitik daude enkargatuta, ez dakit.

Alkatea: ez, ez daude. Ni atzo izan nintzen.

Joseba Vivanco Retes: izan ere, ispiluarekin bezala gertatuko da azkenean Erretako zabuekin.

Alkatea: ni atzo goizean izan nintzen eta egia esan arreta eman zidan. Nik uste nuen ipinita egongo zirela dagoeneko, orduan, urrian dauzkagu esleituta.

Joseba Vivanco Retes: Urrian?

Alkatea: urriaren amaieran esleitu ziren.

Joseba Vivanco Retes: Horiek nork ipintzen ditu?

Alkatea: haiek ipini behar dituzte, enpresak. Hornidura eta kokatzeko aurrekontua zen.

Joseba Vivanco Retes: hornidura eta kokapena. Espero dugu ez izatea parkingekoak eta zerakoak...

*Ayuntamiento de Artziniega  
(Álava)*



*Artziniegako Udala  
(Araba)*

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren zortziak eta bost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.